

INGURUMENAREN PSIKOLOGIA

1. Gaia: Gizakia eta ingurunea harremanaren azterlana. Ingurumen Psikologia. Sarrera

Gizakia-Ingurunea harremana

Zer neurritan gertatzen da nire jokabidea nire ezaugarri pertsonalengatik, eragin sozialengatik eta giroaren eta egoeraren faktoreengatik? Baina ingurune fisikoa ikusezina egiten zaigu askotan. Gizakia-Ingurunea harremana. Gizakiak espazioak eta egoerak sortzen eta aldatzen ditu, eta espazio eta egoera horiek, aldi berean, jokabidean eragina izango dute.

Gizarte Psikologia eta Ingurumen Psikologia

- Gizarte Psikologia – inguru soziala:
 - "Besteen ekintzek, sentimenduek eta pentsamenduek – implizituek, imajinatuek edo hautemaneak –
 - Gizabanakoen pentsamenduetan, sentimenduetan eta ekintzetan
 - Nola eragiten duten
 - Ulertu, azaldu eta aurreikusi nahi duen diziplina da Gizarte Psikologia. " (Allport, 1935).

Ingurumen Psikologiak gizakia eta ingurunearen arteko erlazioan eragina duten faktore guztiak (errealak eta/edo sinbolikoak) aztertzen ditu.

Ingurumen Psikologiaren ekarpen batzuk:

- Eraikitako ingurunea eta jokabidearen arteko elkareraginezko erlazioa ulertzeko
- Gizakiaren jokabideak ingurumenean duen eragina eta jokabide hauek aldatzeko zailtasunak ulertzeko
- Ingurumen kudeaketak etorkizunean izango duen garrantzia eta egoera horretan
- ingurumen psikologoentzat agertuko diren eremu profesionalak ezagutzeko Gizarte psikologoek egiten dugun lanetan ingurunearen azterketa kontuan hartzeko

Ingurumen Psikologiaren historia laburra:

Hiru fase:

1. Historiaurrea (lan aitzindariak):

- 60 hamarkada baino lehen: IP denaren eta ez denaren mugan lehen lanak.
 - Hawthorne Works of Western Electric (Roethlisberger y Dickson, 1939): Argiaren eta ingurumen-diseinuaren beste alderdi batzuen eraginak produktibitatean. Inguruak jokabidean duen eraginaren ikerketan hastapenak.
 - Hawthorne efektua: ikertua izateak, atentzioak... produktibitatea hobetzen du

- Ingeniariek eta arkitektoak hartu zuten ingurua-jokabidea harremanari erantzuteko ardura. Saiakuntza errorearen bidez beren diseinuetatik lortzen zuten esperientziaren bidez.

60 hamarkada baino lehen: IP denaren eta ez denaren mugan lehen lanak.

- Ingurumen-psikologiaren bi aurrekari, eragin handienekoak (baina haien lanak ez dira diziplina honetan sartzen):

- Egon Brunswik: Ingurumen Psikologia terminoa erabili zuen lehen aldiz (1943).
 - Bere "lente de Brunswick" (1956) ereduarekin, giroaren pertzepzioaren egituraketan pertsonen duten rol aktiboa azpimarratu zuen.
- Kurt Lewin: pertsonen giroaz duten barne-irudikapenaren papera "biziespazioan" zehar mugitzeko. Barkerren gaineko eragina (jarraian).

60 hamarkada baino lehen: IP denaren eta ez denaren mugan lehen lanak.

- Barker y Wright (1947). The Midwest Psychological Field Station sortzen dute.

- Ikuspegi ekologikoa (biologiaren antzera): jokabidea gertatzen den inguruan aztertuko dute.

- Behaketa ikerketak egiten zituzten, batez ere haurrak eskolan.

- Jokabide-aldaketak aztertu zituzten egunean zehar, gertuko testuinguruaren arabera.

- Aurrekoak emandako emaitza: Ecological Psychology (Barker, 1968). IP-en aurrekaria.

- Kontzeptu garrantzitsua: jokabidearen eszenatokia (escenarios de conducta - Behaviour setting). "Giza jokabidea erabat kokatuta dago" (Barker, 1968). Gizabanako askok egoera jakin batzuetan dituzten jokabideak pertsona bakar batek hainbat egoeratan dituenak baino antzekoagoak dira.

Barkerren arabera, ezingo genuke giza jokabideari buruzko iragarpenik egin jokabide hori gertatzen den egoera edo testuingurua ezagutu gabe.

- Tolman (1948): mapa kognitiboak.

- Osmond (1957): Altzarien kokapenak subjektuen arteko elkarreragina erraztu edo zaildu dezake.

- Espazio soziopetua eta soziofugoa.

- The salient language (Hall, 1959): espazioaren erabilera kultura desberdinetan.

- Sommer (1959): espazio pertsonala.

- Ittelson & Proshansky (1958) National Institute of Mental Health erakundeak finantzaturako ikerketa-talde bat sortu zuten.

- Testuinguru espazial/arkitektonikoaren eragina ospitale psikiatriko bateko pazienteen jokabidean.

- Beraien lanak IP instituzionalizatzen lagunduko du.

2. Instituzionalizazio-aldia:

Diziplina instituzionalizatzen da eta Psikologiaren barruan nortasun propioa duen ikasgaitzat hartzen da.

- National Institute of Mental Health erakundearen menpeko ikerketa zentroak

- 1961. Arquitectural Psychology and Psychiatry konferentzia

- 1968. EDRA (Environmental Design Research Association) Topaketa
- 1969. Argitaratzen hasten da: Environment and Behaviour diziplina honi buruzko lehen aldizkari zientifikoa
- Proshansky, Ittelson & Rivlin -en argitalpena: Environmental psychology: man and his physical setting (1970).

-Diziplina instituzionalizatzen da eta Psikologiaren barruan nortasun propioa duen ikasgaitzat hartzen da.

-Garapen- eta instituzionalizazio-maila horrek hainbat paradigma koherente azaleratzen laguntzen du (Stokols eta Altman, 1987), honako gai hauek jorratzen zituztenak:

- Eremu edo espazio pertsonala
- Pilaketa (hacinamiento) eta lurraldetasuna
- Ingurumen-jarrerak eta ebaluazioa
- Espazioaren kognizioa
- Baliabideen kontserbazioa
- Jokabide-egoera edo eszenatokiaren aztertzea
- Ingurumen-estresatzaileekiko banakako erreakzioak
- Talde txikiaren ekologia
- Kultura- eta hiri-faktoreek auzoen eta komunitate-taldeen bizitasunean duten eragina.

3. Sendotze eta garatze aldia:

IP finkatutako disziplina bihurtzen da. Irakasgai programak eta ikertzaileak munduko unibertsitate askotan.

- 1981 Journal of Environmental Psychology argitaratzen hasiko da.
 - Argitalpen hau, Environment and Behaviorrekin batera, Ingurumen Psikologiari buruzko ikerketen hedabide nagusi izango dira.
- 1981 IAPS (International Association for People-Environment Studies) sortzen da
- Argitalpenak: Handbook of Environmental Psychology. Stockols & Altman, 1987; Bechtel & Churchman, 2002; Clayton, 2012: Oxford Handbook of Environmental and Conservation Psychology
Fleury-Bahi, Pol & Navarro, 2017: Handbook of Environmental Psychology and Quality of Life Research
 - Diziplinako gai garrantzitsuenak sakon berrikustea
 - Gaiari buruzko hainbat ikerketa
- Erderaz: Psicología Ambiental (Aragónés & Amérigo, 1998, 2002, 2010)

Ingurumen-psikologia diziplina gisa garatzen lagundu duten faktore nabarmenak:

- Ingurunearen degradazioari buruzko azterlanen difusioa eta zabaltzea.
 - Ekologiaren dibulgazioa.
 - Mugimendu ekologikoa. Sentsibilizazioa.
- Ingurunearen kalitatea hiriko bizi-kalitateari buruzko azterlanetan sartzen da.
- Zientzia bezala: espazioaren eraginarekiko interesa portaeran:

- Ittelson & Proshanskyren lanak New Yorken. Psikiatrikoen arkitekturak zentru horietan barneratuta zeuden pertsonen jokabidean zuen eragina
- Arkitektura eta Psikologia Arkitektonikoa deritzonaren interesa: Osmond (Soziofugoa v. Soziopettoa); Sommer (Giza-lurraldetasuna; Territorialidad humana, espazio pertsonala).
REF: Canter, D. (1972). Psychology for Architects. London: Applied Sciences.
- Geografia, Jokabide-Geografiaren eta Giza-Geografiaren interesa.
- Kontserbazio gaietako agenda politikoa:
 - Río-ko munduko Goi Bilera (1992): garapen jasangarria. – Agenda 21 Gaur egungo adibideak: Agenda 21 local Donostia, Udalsarea 21
 - Kyoto-ko Protokoloa (1997): klima-aldaketa. Isuriak gutxitzea berotze globala murrizteko.
 - Johannesburgo (2002): EEBB jarrera negatiboa.
 - Paris (2015): 2020tik aurrera Kyoto ordezkatzeko du. NY (2015): ODS Agenda 2030.
 - Ekintza klimatikoari buruzko goi-bilera 2019: 23 septiembre en Nueva York

Espazio soziofugo eta soziopettoa:

- Humphry Osmond eta Robert Sommer, gizarte-interakzioen eta espazioaren konfigurazioaren arteko harremana aztertu
 - Espazio soziofugoa: pertsonak elkarrengandik aparte mantentzeko joera duten espazioak
 - Espazio soziopettoa: bildutako pertsonak gizarte-interakzioa areagotuz mantentzeko joera zuten espazioak.
- Eremu soziofugoa ez da derrigorrez txarra, ezta soziopettoa unibertsalki ona ere.
- Diseinuaren eta funtzioaren arteko malgutasuna eta kongruentzia dira komenigarrienak,
 - askotariko espazioak egon daitezten eta
 - jendea egoeraren arabera erlazionatu dadin edo ez.

Ingurumen Psikologia definituz:

"Gizabanakoak bere ingurune eraikiarekin duen esperientziaren eta jokabidearen arteko harreman empiriko eta teorikoa ezartzeaz arduratzen den diziplina zientifikoa." (Proshansky, 1976).

"Beste zientzia batzuekiko diziplina arteko arloa, jokabidearen eta ingurumenaren arteko elkarrekiko harremanak aztertzen dituen. (...) Komunitatearen ingurumen-arazoei irtenbideak emateko estrategia zientifikoak, analisi psikosozialaren maila desberdinak barne." (Stokols, 1979).

Ingurumen Psikologia definitzeko ideiak:

- Espazioaren ezaugarriak aztertzerako bideratutako diziplina
- gizakiaren portaeran, pentsamenduan eta jarreretan honek duen eragina zehazteko,
- baita jokabideak ingurunean duen eragina ere,
- bizi-kalitatea, eta gizakien eta haien ingurumenaren arteko harremana hobetzeko helburua duena.

Ingurumen Psikologiako bi lan-arloak:

-Psikologia Arkitektonikoa

-Psikologia Ekologikoa edo "Kontserbazio Psikologikoa"

Hitz gakoak:

- Diziplinarteko izaera: Psikologia Kognitiboa, ebolutiboa, Arkitektura, Kriminologia, Hiri Soziologia, Geografia etab.
- Eklettizismo metodologikoa: Laborategi-esperimentuak vs. landako esperimentuak, ikerketa korrelazionalak eta obserbazionalak.
- Izaera aplikatua.
- Ikuspegi ekologikoa.
- Gizakia subjektu aktibo gisa. Ingurunean eragiten du eta ingurunearen eragina jasotzen du. Horrek esan nahi du...

Diszplinaren egungo irismena eta ezaugarriak (Steg, van den Berg & Groot, 2019):

Ingurumen-psikologiaren egungo eremua ezaugarritzen duten lau gakoak:

a. Gizakiaren eta ingurumenaren arteko interakzioaren ikuspegia (ikuspegi interaktiboa):

- Ingurumenaren psikologiaren interes nagusia: gizakien eta ingurune eraikiaren eta naturalaren arteko elkarrekintza edo interakzioa da.
- Era berean, esplizituki kontuan izango du:
 - ingurumenak nola eragiten duen portaeran, bai eta
 - zer faktorek eragiten duten ingurumen-kalitatea hobetzen lagun dezaketen gizakien portaeran ere.

Ingurumen Psikologiak jokabidea aztertzen duen eszenatoki desberdinak

- a)Hiri-ingurumena
- b)Ingurumen eraikia
- c)Ingurumen naturala
- d)Ingurumena erlazio sozialen modulatzaille bezala

Ekimen adibideak:

- Adibidez, ingurumen-baldintzak, hala nola naturaren presentzia eta natura kontserbatzeko neurriak babesteko borondatearen ikerketa edo moldatze esku-hartzeak.
- Jendeak natura kontserbatzeko neurriak babesteak eragina izan dezake ingurumen-baldintzetan, hala nola biodibertsitatean. Nola ikertu? Nola eraldatu aspektu hau?
- Adibidez, garraio publiko eta pribaturako dagoen azpiegiturak eragina izan dezake automobilaren erabilera-mailan, eta, aldi berean, automobilaren erabilera-mailak eragina izan dezake ingurumenarazoen larritasunean, hala nola airearen kutsaduran eta berotze globalean.
- Beraz, gizakiak eta ingurumenaren arteko elkar-eragina modu dinamikoan erlazionatuta dagoela ulertu behar dugu.

b. Diziplinarteko ikuspegia:

- Ingurumen-psikologo askok diziplinarteko inguruneetan lan egiten dute eta beste diziplina batzuetako akademikoekin lankidetzan estuan aritzen dira.
- Diziplina bakoitzak aztertzen ari den fenomenoari buruzko ikuspegi desberdina ematen du, eta, aldi berean, elkarrekin, arazoaren irudi osoagoa lortzen dute.

- Laburpen historikoan deskribatzen denez, diziplinen arteko lankidetzak hiru eremutan gertatu da nagusiki:

1. Ingurumen-psikologiak arkitekturaren eta geografiaren diziplinekin lankidetzak estuan lan egin du beti, giza eta ingurunearen arteko harremanen osagai fisiko-espazialen irudikapen egokia ziurtatzeko.

2. Ingurumen psikologiaren garapen teoriko eta metodologikoak psikologia sozial eta kognitiboaren eragin handia izan du.

3. Ingurumenaren aldeko portaera aztertu eta sustatzean, ingurumenpsikologoek ingurumen-zientzialariek lankidetzan jardun dute, besteak beste, hainbat portaerek ingurumenean duten eragina behar bezala ebaluatzeko.

c. Ikuspegi aplikatua (arazoetan ardaztutako ikuspegi aplikatua):

- Ingurumen-psikologoek ez dituzte fenomenoren bati buruzko ikerketak egiten jakinmin zientifikoagatik soilik;

- Aitzitik, bizitza errealeko arazoak konpontzen ere laguntzen saiatzen dira.

- Horrek ez du esan nahi ingurumen-psikologoek teorian interesik ez dutenik.

- Arreta handia jartzen da gizakiaren eta ingurumenaren arteko elkarreraginak ulertzeko, azaltzeko eta aurreikusteko teoriaren eraikuntzan eta probatzean.

- Ingurumen- psikologiako teoriaren garapenaren helburu garrantzitsu bat:

- bizitza errealeko arazoaren konponbide eraginkorrenak identifikatzea da.

- Ingurumen-psikologiak gizakiaren eta ingurumenaren arteko interakzioak aztertzen ditu, eskala-maila desberdinetan:

- Etxeko ingurunea

- Auzoak

- Hiriak

- Erreserba naturalak

- Herrialdeak

- Baita planeta osoa ere

- Maila desberdin horietako bakoitzean aztertzen dira arazoak eta horiei erantzuteko konponbideak. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Adibidez, tokian-tokian edo maila lokalean, zaborra botatzea eta birziklatzea bezalako arazoak ikerketa- gune izan daitezke.

- Eskualde eta nazio mailan, espezieen galera eta errehabilitazio ekologikoa bezalako irtenbideak azter daitezke.

- Mundu mailan, interesgarriak dira klima-aldaketa bezalako arazoak eta klima-aldaketari aurre egiteko teknologia berrien aplikazioa bezalako irtenbideak.

- Ingurumen-psikologia eskala guztietako arazoez arduratzen da, maila lokaletik globaleraino.

- Aldagai independente gisa:

- Ingurune naturala -----> JOKABIDEA

- Eraikitako ingurunea -----> JOKABIDEA

- Mendeko aldagai gisa:

- Jokabideak ingurumenaren kalitatean dituen ondorioak.

d. Metodoen aniztasuna:

- Ingurumen-psikologiak, psikologiako beste disziplinetako metodo kuantitatibo eta kualitatibo berberak erabiltzen ditu neurri handi batean.
 - Hala ere, beste diziplina psikologiko batzuek, askotan, ikerketa-paradigma nagusi bat duten bitartean, ingurumenpsikologiaren ezaugarria da metodo ugari erabiltzen direla.
 - Ikerketa-metodo bakoitzak bere indarguneak eta ahuleziak ditu.
 - Metodo bat aukeratzeak, normalean, barne eta kanpo baliozkotasunaren arteko konpromisoa hartzea dakar
 - validez interna vs validez externa
 - Barnebaliozkotasunak kausa-efektu erlazioak zein neurritan ezar daitezkeen islatzen du.
 - Kanpoko baliozkotasunak erakusten du azterlan baten emaitzak beste populazio edo ingurune batzuetara orokortu daitezkeela.
 - Aurkikuntza baten kanpokobaliozkotasun txikia arazotsua izan daiteke, helburua arazo aplikatu espezifiko bat konpontzeko esku-hartze bat diseinatzea bada.
 - Hala ere, ez da hain garrantzitsua izango ikerketaren helburua teoria probatzea bada, kasu honetan barne-baliozkotasun handia lortzea baita kezka nagusia.
 - Idealki, ingurumen-psikologoak fenomeno beraren aurkikuntzak erantzuten saiatzen dira, hainbat ikerketa-diseinu erabiliz.
 - Horrela, ikerketa-diseinu baten ahuleziak beste baten indarguneekin konpentsa daitezke, barneko eta kanpoko baliozkotasuna optimizatuz.

Ingurumen psikologiako ikerketa-metodo nagusiak:

- **Galdetegi azterlanak (estudios basados en cuestionarios)**

Galdetegi-azterketen helburua: portaerak deskribatzea eta pertsonen hainbat gairi buruz dituzten pertzepzioak, iritziak, jarrerak eta sinesmenak biltzea. Bi aldagaien edo gehiagoren arteko erlazioak ezartzeko ere asko erabiltzen dira. Adibidez, pertsonen galdetzean zein maiztasunez botatzen duten zaborra eta zein pozik dauden beren auzoko zaborrontzien kopuruarekin, bi aldagaien arteko erlazioa ezar daiteke.

Lehenik eta behin, ezin da baztertu hirugarren aldagai batek harremanean eragin izana. Esate baterako, zabor-ontzi asko dituen eremu batean biztanle-talde konkretu bat bizi daiteke (adibidez, hezkuntza maila altua duten pertsonak), eta horiek desberdinak izan daitezke sistematikoki zabor-ontzi gutxi dituzten eremuetatik. Bigarrenik, harremanaren norabidea ez dago beti argi: Udalerriak erabakitzen du zakarrontziak jartzea jendeak lurrera zabor asko botatzen duelako eremu jakin batzuetan, edo jendeak zaborra lurrera botatzen du zakarrontzirik ez dagoelako?

Galdetegi-azterlanak oso erabiliak dira Ingurumen Psikologian arrazoi askogatik:

Alde batetik, ingurumeneko kondizioen manipulazioa (ikerketa esperimentalean bezala) ez da etikoa edo posible. Adibidez, transporte

publikoaren prezioak kotxearen erabileran daukan eragina aztertzerakoan, ezingo genuke zonalde batzuetan gasolina prezioa bikoiztu eta beste batean ez, ikerketa egin ahal izateko. Are gehiago, galdetegi-azterlanen kanpoko baliozkotasuna altua izan ohi da, eta hau garrantzitsutzat hartzen da ingurugiro ikerketetan. Azkenik, galdetegi-azterlanak aplikatzeko erlatiboki errazak eta kostu baxukoak dira

• Laborategiko esperimentuak (ikerketa esperimentalak):

Aleatoriotasunak esan nahi du esperimentuko parte-hartzaile guztiek probabilitate bera dutela baldintza esperimental bakoitzari esleitzeko. Aleatoriotasunak minimizatu egiten du, talde esperimentalen arteko desberdintasunak, faktore indibidualek eragindakoak izateko aukera, hala nola aspektu soziodemografiko edo nortasun-motek eragindako desberdintasunak. Esate baterako, parte-hartzaile maskulinoak bakarrik esleitzen bazaizkio zaborrontzia izatearen egoerari eta emakumeak soilik zaborrontzirik gabeko egoerari, baldintzen arteko aldeak generoagatik izan daitezke, eta ez edukiontzia egon edo ez egon gertatzeak eragindakoak. Inguru esperimentaletan kontrol handia izateak, oro har, egoera artifizialak sortzen ditu. Beraz, esperimentuek askotan kanpoko baliozkotasun txikia dute, hau da, baliteke emaitza erraz ez orokortzea mundu errealean tipikoki gertatzen dena.

Laborategiko esperimentuak ingurune kontrolatu batean egiten dira, gehienbat artifiziala, ikerketaren helburuarekin sortua. Laborategiko esperimentuek aldagaien arteko erlazio kausalak ezartzea ahalbidetzen dute, esperimentuen oinarritzko bi ezaugarri direla eta: manipulazioa eta ausazko esleipenak edo aleatorioak. Imajinatu ikertzaile batek x aldagaiak (aldagai independentea, adibidez, zaborrontzien presentzia edo gabezia) eta (menpeko aldagaia, adibidez, zaborra botatzea) aldagaian eraginik duen aztertu nahiko lukeela.

Aldagai independentea bakarrik manipulatzeko denean eta gainerako aldagai guztiak berdintzen direnean, zentzuzko ziurtasunez ondoriozta daiteke baldintzen arteko erantzunetan edozein desberdintasun manipulazioaren ondorio dela. Hau da, adibidean, pertsonen zakarrontziarekin eta zakarrontzirik gabe, botatzen duten zabor kopuruan aldea badago, zaborra botatzeko arrazoietakoa bat identifikatu da: zakarrontziak egotea. Ezaugarri hori dela eta, laborategiko esperimentuen barnebalioa handia da.

• Simulazio-azterketak (ordenagailu bidezkoak):

Batzuetan, ezinezkoa da ikerketa bat egitea pertsonekin edo ingurumen-estimulu errealistekin. Adibidez: milaka pertsona inplikatzeko dituzten sistema konplexuei buruz ikastea helburu duten azterlanak, edo pertsonen etorkizuneko ingurumen-egoerak ebaluatzeko moduari buruzko azterlanak. Ingurumen-psikologoek gero eta gehiago erabiltzen dituzte

ingurumen-simulazioak horregatik. Ikerketa mota honetan ingurumenaren edo/eta gizakiaren alderdiak simulatzen dira ahalik eta modurik zehatz eta errealistenean.

Simulazioak erabil daitezke konputagailuekin sortutako ingurune birtual murgilkorrak sortzeko: parte-hartzaileari ingurune edo gertaera partikularrak esperimendatzea nolako izango litzatekeen adierazten diotenak, informazio geografikoko sistemetan datuak 3Dtan bistaratzea ahalbidetzen dutenak edo lurra edo baliabideen erabileraren eredueta oinarritutakoak. Oro har, simulazioek ingurunearen gaineko nolabaiteko kontrola mantentzea ahalbidetzen dute, horrela barnebaliozkotasuna areagotuz, kanpo-baliozkotasuna gehiegi arriskuan jarri gabe.

• Landa-azterketak (estudios de campo):

Kanpo-baliozkotasun handia lortzeko, barne-baliozkotasuna gehiegi arriskuan jarri gabe, ingurumen-psikologo askok landa-ikerketak eta esperimenduak erabiltzen dituzte. Landa-esperimenduak bizitza errealeko inguruneetan egiten direnez, kanpo-baliozkotasuna erlatiboki altua dute. Hala ere, barne-baliozkotasuna ere nahiko altua da. izan ere, esperimendatzailea egoera kontrolatzen saiatzen da, aldagai independenteak sistematikoki manipulaturik (adibidez, inguruan zakarrontzi bat jarri edo kenduz) eta/edo parte-hartzaileak ausaz edo aleatorioki ikasketa-baldintza desberdinetara egokitzen saiatuz (adibidez, zakarrontziak dituzten edo ez dituzten giroak).

Hori egitean, ikertzaileak ziur egon daitezke baldintzen arteko edozein desberdintasun manipulazioen ondorio dela (eta ez, adibidez, desberdintasun indibidualen ondorio), eta horrek barne-baliozkotasuna bermatzen du. Hala ere, landa-esperimenduak ingurune errealetan egiten direnez, zaila da balizko nahasmen aldagaiak kontrolatzea, hala nola baldintza klimatiko aldakorrak edo ustekabeko etenak. Gainera, egoera askotan, ausazko esleipena ezinezkoa da.

• Kasu-azterketak (estudios de caso):

Kasu-azterketa egoera jakin baten azterketa sakona da. Ikerketa-gai oso zabal bat kasu bakar batean mugatzeko erabiltzen den metodoa da, hau da, pertsona, ingurune, egoera edo ekitaldi batera mugatzeko. Adibidez, hiriko ingurumen-kalitatearen gai zabala auzo jakin batean azter daiteke, non udalak zaborrari aurre egiteko zaborrontziak jarri dituen berriki. Aldagai kopuru mugatua aztertzeko protokolo zorrotza eta galdera itxiak erabili beharrean, kasuak aztertzeko metodoak egoera edo gertaera bakar baten –kasu batean- azterketa esploratzailea eta kualitatiboa egiteko aukera eskaintzen du.

Ikerketa kualitatiboak zenbakizkoak ez diren hitzak edo beste adierazle batzuk (irudiak edo marrazkiak) erabiltzen ditu datu gisa. Kasuen

eta beste ikerketa kualitatibo mota batzuen azterketa helburu nagusia gizabanakoek edo taldeek fenomeno bati egozten dioten esanahia aztertzea eta ulertzea da.

Kasuaren azterketa batean, pertsonak edo gertaerak beren testuinguruan ikertzen dira, ingurune naturalen barruan, hala nola etxean, jokozelaietan, unibertsitatean edo kalean. Ingurune horiek sistema irekiak dira, eta testuinguru sozial, fisiko, historiko eta kulturalarekiko elkarrekintzek etengabe eragiten diete baldintzei, etengabeko aldaketa-prozesu bat sortzeko. Hala ere, ez da fenomenoaren interpretazioaren egia objektibo bakarrik egongo.

Estrategia desberdin asko erabil daitezke kasu-azterketetan. Ikerketa kualitatiboko metodoak, hala nola kasuen azterketak, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira aldizkari akademikoetan, Hala ere ikerketa kuantitatiboko metodoak (zenbakiak erabiltzen dituztenak, datuen gisako hitzak erabili beharrean) oraindik nagusi dira ingurumen-psikologian.

Ikerketa metodoen aniztasuna

(Steg, van den Berg & Groot, 2019)

Ingurumen-psikologiako ikerketa-metodo nagusien laburpena

Egoera	Metodoa	Indarguneak	Ahuleziak	Erabilera
Edozein inguru-egoeratan	Galdetegi-azterlanak	Kanpo-baliozkotasun altua Populazio zabaletara iristeko metodo egokia (koste eta eraginkortasun aldetik)	Aldagaiak ez dira manipulatzeko Zaila inferentzia kausalak egitea	Pertzepzio, sinesmen eta portaeren deskribapena Aldagaien arteko erlazioak aztertzeko
Egoera edo eszenatoki artifiziala	Laborategiko esperimentuak	Barne-baliozkotasun altua Aldagaien kontrola	Kanpo-baliozkotasun baxua Artifizialtasuna	Teoria edo hipotesiak probatzea Erlazio kausalen identifikatzea

Ikerketa metodoen aniztasuna

(Steg, van den Berg & Groot, 2019)

Ingurumen-psikologiako ikerketa-metodo nagusien laburpena

Egoera	Metodoa	Indarguneak	Ahuleziak	Erabilera
Egoera edo eszenatoki artifiziala	Simulazio azterlanak	Ekilibrio egokia barne-kanpo baliozkotasunean Bisualizazio errealista	Gaitasun eta ekipamendu konplexuak eskatzen ditu Fikziozko bezala hauteman daiteke	Gizakia-ingurumena dinamika konplexuen ikerketa Etorkizuneko garapenen bisualizazio eta ebaluazioa
Egoera edo eszenatoki artifiziala	Landa-azterketak	Ekilibrio egokia barne-kanpo baliozkotasunean Erreplikagarria	Kontrol esperimental mugatua Datu-jasotzeak denbora asko darama	Egungo jokabideen ikerketa Esku-hartzeen ebaluazioa
Egoera edo eszenatoki erreala	Kasu-azterketak	Kanpo-baliozkotasun altua Datu aldetik	Barne-baliozkotasun baxua Denbora asko	Deskribapenak Esplorazioak Hipotesien garapena

Esparru profesionalak:

- Tokiko agenda 21 garapenean hiritarren parte-hartzeari buruzko ikerlana.
 - Agenda21local, Donostiako tokiko agenda 21, Udalsarea 21
- Segurtasun ezaren pertzepzioa eta hiriko diseinuari buruzko azterlanak.
- Hirigintza-trasformazioetako ebaluazio soziala.
- Jokabide ekologikoei buruzko ikerlanak hiriko hondakinen planak diseinatzeko; hondakinen tratamenduari buruzko komunikazioaren kudeaketa Adib. errauskailuaren kontrako mugimendua.
- Paisaiaren inguruko lehentasunak aztertzeke ikerketak. Adib. Paisaien katalogoa
- Sozio-ingurumen gatazketan kudeaketa eta bitartekaritza (Adib. Babestutako natur espazioetan, <http://www.mediacionambiental.com/que-ofrecemos>)
- Poluzio akustikoak jokabidean duen eragina.
- Egoitza-asetasunari buruzko lanak.
- Hiriko espazioaren erabilera: adib. Mugikortasuna.

2. Gaia: Ingurunearen Pertzepzioa eta Esanahia

Gaitegia

- Ingurunearen kognizioa. Sarrera.
- Mapa kognitiboak, orientazioa eta nabigazioa
- Ingurunearen pertzepzioa eta esanahia
- Gai bereziak: paisaiak, lehentasunak edo preferentziaketa errestaurazioa

Ingurumen-Kognizioaren Hastapenak: Nola hautematen dugu ingurunea?

1. Pertzepzioari buruzko teoriak: jokabide aktiboa da
2. Espazioa hartzaileak interpretatzen du.

Ingurumen-kognizioaren ikusmolde desberdinak

Kognizioa (Neisser, 1981): ezagutzeko jarduera: ezagutzaren jabeakuntza, antolaketa eta erabilera. Hau da, giza gogamenean estimuluak nola prozesatzen diren jakitea, sentimenek harrapatzen dituzten unetik hasi eta estimulu horiek jokabide bat egiteko erabiltzen diren arte.

- Moore eta Golledge(1976) ingurumen-kognizio:
 - gizabanakoek eta taldeek
 - ingurune fisiko, erreal edo imaginario, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoen
 - oinarrizko aspektuei, egiturazkoei, funtzionalei eta sinbolikoei buruz duten
 - ezagutza, irudiak, informazioa, inpresioak eta sinesmenak.
- Kasu honetan, kontzeptua hiru elementutatik aztertzen da:
 - a. Zer elementuk osatzen dute ingurumen-kognizioa: ezagutzak, irudiak, etab.
 - b. Nortzuk dituzten: norbanakoak edo taldeak
 - c. Nondik datozen: ingurunetik
- Beraz, ingurumen-kognizioaren azterketara hurbiltzeko bi modu daude, biak lotuta:
 - Kasu batzuetan, ezagutzeko prozesuarekin lotutako alderdiak aztertzen dira.
 - Beste kasu batzuetan, zer ezagutzen den

-Pertzepzioari buruzko teoriak: jokabide aktiboa da

- Estimuluen egiturak hautematen ditugu: pertzepzioan printzipio sailkatzailea jokabide aktiboa da (Gestalt).
- Jokabide aktibo hori pertzepzio-zikloaren nozioaren bidez azaltzen da. Ziklo horrek pertzepzio-eskemen arabera jarduten du. (Eredu zibernetikoa).
- Neisserenarabera, bi etapatan oinarrituko litzateke:
 - Detekzio eta analisirako aurre-arreta,
 - Eta beste bat, hautemandako objektu batean, eta ez beste batean,

eratortzenden pertzepzioeraikuntzari buruzkoa.

- Pertzepzio-eskemakikasitakoak dira. Ikaskuntza faktore kultural eta sozialek baldintzatzen dute. Baita ingurunera egokitzeagatik ere.

-Espazioa hartzaileak interpretatzendu

Objektuen pertzepzioa vs. Ingurumen-pertzepzioa

- Estimulu sinpleen propietateak
 - Kolorea, sakonera, forma, mugimendua...

vs.

- Eszena osoak
 - Osotasun gisa ulertuta
 - Tamaina eta konplexutasun handiagoa
 - Jasotzailearen zeregina:
 - Mugitu egiten da,
 - Eszenaren zati bat da,
 - Ikuspegi ugari hartzen ditu,
 - Bere helburu eta asmoekin lotura
 - Estimuluen ugaritasuna: interesgarriak diren edo esanguratsuak diren estimuluetan kontzentratzen da

MAPA KOGNITIBOAK, ORIENTAZIOA ETA NABIGAZIOA

“Mapa Kognitiboen” lehen erreferentziak

- "Mapa kognitibo" terminoa Edward C. Tolman-i zor zaio: 1948an Cognitive maps in rats and men artikulua idatzi zuen.
 - Arratoiaren ikaskuntza-prozesuak azaltzeko mapa kognitiboa konstruktua jasotzen du.
- Ingurumen-psikologiako mapa kognitiboei buruzko ikerketa-lerroaren sorrerako bigarren funtsezko erreferentzia Kevin Lynch urbanistari zor zaio: 1960an "The Image of the City" liburua argitaratu zuen.

KEVIN LYNCH

- "Hiria espazioko eraikuntza bat da, baina eskala handikoa, aldi luzeetan antzeman daitekeena. Hirigintza, beraz, arte tenporalada "
- "Hiriko paisaiaren funtzioa gogoratua izateko eta gozamina sortzeko irudi bat sortzea da".

*Lynchek mapa kognitiboak erabiltzen ditu bere ikerketa egiteko

Mapa kognitiboaren kontzeptuari buruz hau esaten da

- "Mapa kognitiboa edo eskema soziotenporala konstruktua hipotetiko bat da, eta haren existentzia ondorioztatzen dugu introspekzio-jokabidea eta -kontakizunak behatzean. Gutxi ezagutzen da bere neuropsikologiari buruz, kortexean gordetzen den gutxi gorabeherako ideia batetik haratago. Ez da ulertzen nolako datuak gordetzen diren "(Lee, 1976).

- "Mapa mental bat da. Pertsona batek buruan daraman hiriaren marrazkia: berarentzat garrantzitsuak diren kaleak, auzoak eta plazak, nolabait lotuta eta elementu bakoitzari erantsitakokargaemozionalarekin"(Milgram,1977).

Definizioek bi alderdiri egiten diete erreferentzia.

-Mapa kognitiboa, ikusi daiteke:

- Prozesu bezala
- Emitza bezala

Mapa kognitiboen propietateak

- Mapa kognitibo konstruktua mapa geografiko bat bezala funtzionatzen du (Downs, 1981; Marchesi, 1983), baina ezin da ikusi, bere funtzioa ezagutzen da, baina ez bere izaera (Blautet al., 1970).
- Mapa kognitiboak informazioa hautatzeko, kodetzeko eta ebaluatzeko prozeduren arabera eratzen dira (Thorndyke eta Stasz, 1980)
- Etengabe aldatzen ari da, pertsona giroarekin elkarreraginean dagoen bitartean.
 - Mapa kognitiboa gizabanakoak jasotzen duen informazioaren, bere ingurunearen eta bertan garatzen duen ekintzaren funtzioa da.
 - Pertsona batek une jakin bateko giro jakin bati buruz duen mapa kognitiboa ezagutzea, denboraren puntu batean zeharkako mozketak bat ematea da (Downseta Stea, 1983)
- Ez da erraz ahanzten, baina denboraren higadura edo desgastea jasaten du gizabanakoak ingurunearekin interakziorik ez badu. Berriz ere harekin elkarreragina hasten denean gogora daiteke (Neisser, 1981)
- Mapa kognitiboek dauzkaten dimentsio nagusiak eta espazioko edozein puntu definitzen dituztenak hauek dira:
 - tamaina
 - distantzia
 - norabidea
- Bere funtzioak4 dira (Siegelet al., 1978).
 - a. Esperientzia soziala eta kognitiboa antolatzea
 - b. Espazioaren antolamenduan eragitea
 - c. Ekintzei eta ekintzasekuentzien plangintzari buruzko erabakiak sortzeko tresna izatea.
 - d. Ingurunearen esperientziaren eremu ez-espazialak ezagutzea

Nolako da mapa kognitibo bat?

Esperientzia eta memoria bisualaren arabeko irudikapena da.

Memoria kartografikoa azaltzeko estilo kognitiboak (Appleyard)

Eskala handiko inguruneetako eta munduko hainbat tokitako ikerketak. Ondorengo estiloak aurkitu dituzte:

1. Irudikapen "kartografikoa". Ikuspegi globala, panoramikoa, paperezko mapa (edo digital) batek eskaintzen digunaren antzekoa. Mapamota:espaziala

2. Irudikapen "sekuentziala edo ibiltaria". Ez dago osotasunaren ikuspegi panoramikorik, interkonektatutako mugarren eragiketa "integratzaile" bat baizik. Leku multzo bat interkonektatuak Mapamota:sekuentziala

Lehen Ondorioa

- Irudikapen ESPAZIALAk mentalitate kartografikoago bat adierazi dezake, orientazioaren zentzu garatuagoa edo espazioarekin esperientzia handiagoa duena.
- Irudikapen SEKUENTZIAL edo IBILTARIAN abiapuntu bat identifika daiteke, eta hasierako puntutik urrun dagoen puntu batean espazioa itxi. Beraz, distortsio gehiago identifikatzen ditugu.

Mapa kognitiboa: David Stea-ren Definizioa

•"Mapa kognitiboa konstruktubat da, jendeari ingurunearen izaerari buruzko informazioa eskuratzea, kodetzea, biltegiratzea, gogoratzea eta manipulatzeko ahalbidetzen dioten prozesuak biltzen dituena".

•"Informazio hori jendearen eta inguruneko objektuen ezaugarri eta kokapen erlatiboari buruzkoa da"

•"eta funtsezko osagaia da egokitze-prozesuetan eta erabaki espazialak hartzeko prozesuetan. "

Mapa kognitiboen funtzio psikologikoak

- Ingurumen-erreferentzia-marko bat ematea; dagoen lekua bere testuinguruarekin erlazionatzeko gai ez den pertsona galdua dago.
- Esperientzia soziala eta kognitiboa antolatzea: jokabide-gidoiak eta eszenarioak.
- Ekintzei buruzko erabakiak sortzeko eta ekintza-sekuentziak planifikatzeko gaitasuna.
- Emoziozko segurtasun-sentsazioa sortzen laguntzea.

Oinarrizko bi funtziotan laburbil daitezke:

1. Ingurunearen kontrolaren pertzepzioa.

- Kontrol-locusa.
- Segurtasuna.

2. Ekonomia kognitiboa:

- erabakiak hartzea,
- lekualdatzeko planak eta ekintzak jokabide-egoeren arabera antolatzea.

Laburbilduz:

Mapa kognitiboa (Neisser, 1981):

- Orientazio-eskema bat da
 - Informazioa onartzen duena eta
 - Ekintza zuzentzen duena
- Haren funtzioa espazio fisikoaren barruan:
 - Lokalizazioa eta mugimendua erraztea da

*Dagoen lekua ingurumen-testuinguruarekin erlazionatzeko gai ez den pertsona galduta dago. Beraz, mapa kognitiboak ingurune marko bezala funtzionatzen du

- Gizakia dagoen, mugitzen den edo irudikatzen duen edozein espazio fisikok leku horren mapa kognitiboa sortzen du, eta, ondorioz, ingurune askotan aztertu da konstruktua hori:
 - Etxebizitza bat edo lur osoa
 - Hiri-giroak gehien aztertu direnak dira
- Azkenik, pertsona bakoitzak bere mapa kognitiboa dauka inguru ezagun bakoitzerako, baina.
- Mapa kognitibo kolektiboak ere badaude, Lynchek(1960) "irudi publikoak" deitzen dituenak.
 - Horrela, hiri bateko biztanleek haren irudi bera partekatzen dute, nahiz eta haien artean ezberdintasunak egon.

Hiriaren irudikapena

- Hiriko mapa kognitiboa izendatzeko Milgramek(1977) erabiltzen duen terminoa mapa mentala da:
 - pertsona batek buruan daraman hiriaren marrazkia, hau da,
 - berarentzat garrantzitsuak diren kaleak, auzoak, plazak, nolabait lotuta eta elementu bakoitzari erantsitako karga emozionalarekin.
- Hiriaren irudia dela esan daiteke,
 - Hauxe da hain zuzen, hiriaren irudikapena aztertzeko erreferentzia den Lynch (1960) liburuaren izenburua dena.
- Lynch (1960), mapa kognitiboa osatzen duten hiri-elementuek ebaluazio altua dute hiru propietate hauetakoren batean:
 - Identitatea: objektu bat identifikatzeak besteekiko bereizketa dakar, entitate bereizi gisa.
 - Egitura: objektuak behatzailearekin eta beste objektu batzuekin duen espazio-edo jarraibide-erlazioa
 - Esanahia: zerbait hunkigarria edo praktikoa esan nahi du behatzailearentzat (zer funtzio du edo zer esan nahi du behatzailearentzat?).
 - Normalean ez da kontuan hartu osagai afektiboaren garrantzia hirien irudikapenean eta mapa kognitiboen ikerketan

Mapa kognitiboen elementuak (Lynch, 1985)

- Bideak (Sendas)
 - Behatzaileak normalean, noizean behin edo potentzialki jarraitzen dituen

- o bideak dira (conductos).
 - o Kaleek, bidezidorrek, igarobideek, ubideek edo trenbideek irudika ditzazkete.
 - o Pertsona askorentzat horiek dira beraien irudiaren elementu nagusiak.
 - o Jendeak hiria begiratu du, hiria zeharkatu duen bitartean, eta bide horien arabera antolatzen eta konektatzen dira gainerako ingurumen-elementuak.
- Barrutiak edo auzoak (Distritoso barrios)
 - o Behatzailea "bere baitan" sartzen den hiriko atalak edo zonaldekonkretuak dira, identifikatu dituen izaera komuna izango balute bezala ezagutu daitezkeenak, beraz, nortasun propioa dutenak.
 - o Hiriko territorioak dira, norberarenakedo besteenak eta identitatearen ideiarekin oso lotuta daudenak.
- Mugak (Límites)
 - o Behatzaileak erabiltzen ez dituen elementu linealak dira, bide bezala ikusten ez dituenak.
 - o Bi zatien arteko elementu linealak: hesiak, harresiak, lorategiaren muga...
 - o Bi faseren arteko mugak dira, jarraitutasunaren haustura linealak.
 - o Muga horiek eskualde bat bestearengandik bereizten duten hesiak izan daitezke, edo josturak, bi eskualde erlazionatu eta lotzen dituzten lerroak.
- Nodoak (Nodos)
 - o Behatzaile bat hiri batean sartzeko gune estrategikoak dira, eta abiapuntu edo helmuga izan daitezkeen foku intentsiboak dira.
 - Hau da, bere garrantzia behatzailearen erabileran datza.
 - o Hainbat ibilbide elkartzen diren puntuak; erreferentzia estrategikoak.
 - o Elkarguneak izan daitezke, bidezidorren haustura-edo konbergentzia-guneak eta egitura batetik bestera igarotzeko uneak.
- Mugarriak (Mojones)
 - o Beste erreferentzia-puntu mota bat dira, baina kasu honetan behatzailea ez da horietan sartzen edo horietan ibiltzen, kanpoerreferentzia puntuak dira.
 - o Normalean, nahiko erraz definitutako objektu fisiko bat da, adibidez, eraikin bat, seinale bat, denda bat edo mendi bat.
 - o Hiriaren barruan egon daitezke, edo distantzia batera, non helburu praktikoko guztietarako norabide konstante bat sinbolizatzen duten.

Beste azterlan batzuek hiru kategoria bereizten dituzte:

- Puntua
 - o nodoa
 - o mugarria
- Linea
 - o bidea
 - o muga
- Azalera (superficie)
 - o barrutia edo auzoa

Estilo kognitibo bakoitzaren oinarrizko elementuak

- ESTILO KOGNITIBOAK
 - o ESPAZIALA
 - MUGARRIAK BARRUTIA/AUZOAK

- SEKUENTZIALA
 - BIDEAK NODOAK

Esanahi emozionala edo afektiboa (Bilboko mapa mundia) eta baita estereotipo, aurreiritzi, distortsio eta sesgoak ere... adi eta kontuz!

Distortsioak: mapa kognitiboetan eta distantzien pertzepzioan

- Marraztutako mapetan, sarritan honako hauek aurkituko ditugu:
 - Sesgo Euclidiarra:
 - Kaleak paraleloak edo perpendikularrak egiteko joera,
 - Angelu zuzenak ez diren kale-gurutzeak honela marrazteko joera, eta
 - Bihurgune leunak zuzenak bezala agertzeko joera.
- Forma ona:
 - Ingurunea egituratuago bihurtzen duten elementuak gehitzea (egituraketa inferentziala);
 - Era berean, emozionalki inplikaturik gauden elementuak handitzeko eta desitxuratzeko joera.
- Distantzien estimazioan (erabakiak hartzeari eragiten dio):
 - Segmentazioaren sesgoa:
 - Ibilbide bat segmentutan zatikatzeak distantzia osoaren pertzepzioa aldatzen du. Zenbat eta zatituagoa, orduan eta luzeagoa.
- Sesgo Euclidiarra (berriz ere!):
 - Distantziaren pertzepzioa proportzioan handitzen da ibilbideak dituen angelu zuzenen kopuruarekiko (bidegurutzeak daudenean).
- Eskala supra-ordenatuaren isuria: Zein hiri dago iparralderago, Bilbo ala Perpignan?

Mapa kognitiboak aztertzeko teknikak

- Marrazkiak: teknika erabiliena. Eraitza aztertutako lekuari buruz subjektuak duen irudikapen mentalaren irudikapen grafikoa da.
 - Jarraibidea: egizuhiriaren mapa bat, bururatzen zaizkizun elementu guztiak marraztuz. Marrazten den elementu bakoitzak zenbakia izango du, eta beste orri batean idatzi lekuaren zenbakia eta izena. Lynch, 1960.
- Lekuen zerrenda: "Mugarri orientagarrien" erreperitorioa. Helburua: talde batek, espazio bati buruz duen mapa prototipikoa aztertzea.
 - Jarraibidea: subjektuei eskatzen zaie ikertzen ari den espazioa kontuan izanda, gogoratzen dituzten lekuen zerrenda zehatza egiteko. Aragonésy Cortés (1990), Pulido y Aragonés (1996).
- Maketak: Aurrekoaren antzeko teknika. Garapen espazial abstraktura iritsi ez diren haurrei aplikatzen zaie.
 - Teknika: subjektuek espazio jakin bat irudikatzen dute paper handi batean. Horretarako, pinturak, hainbat tamainatako egurrezko blokeak eta aztergai den espazioarekin zerikusia duten tamaina txikiko beste elementu batzuk (hiria, etxebizitza) eskaintzen dira, haurrari lekuaren irudikapena errazteko balio dutenak. Aragonés, Jiménez, Matías eta Noguero (1988).
- Diapositibak ezagutzeko (irakurgarritasuna): simulazioteknika hau oso ohikoa da

psikoingurumeneko ikerketan.

- Horren bidez, subjektuari estimuluak aurkezten zaizkio, hark ezagutu eta ebalua ditzan, hiri-elementu baten irakurgarritasun-azterketa egin ahal izateko. Milgramet al. (1972), Milgran eta Jodelet(1976).
- Distantzien estimazioa. Teknika hau subjektuei espazioko puntuen arteko distantziak balioesteko eskatzean datza, geometria euclidiarraren eta espazioirudikapenaren arteko elkarrekikotasuna azaltzeko balio duten errealitatearekiko akatsak zein neurritan ematen diren behatzeko.
 - Teknika honek, dimentsio anitzeko analisiarekin konbinatuta, hiri-egitura jakin batzuk zein neurritan hautematen eta/edo desitxuratzen diren jakiteko aukera ematen du. Cantereta Tagg(1975); Camacho eta Hernández (1986).
- Joan-etorrien kontaketa edo narrazioa. Leku batetik bestera joatean egindako pausuak, erreferentziak, estimuluak, emozioak... jasotzen ditu.

Mapa kognitiboen ikerketa aplikatuko ildoak

- Egoitza-giroaren edo giro instituzionalaren irakurgarritasuna baloratzeko proba diagnostikoak. Behar bereziak: adb.: adinekoak.
- Lekualdatze edo mugikortasun-planak eta mugikortasun-baliabideak.
- Hiri-espazioen jabetzea eta erabilera.
- Hiriaren irudia eta segurtasunik ezaren pertzepzioa.
- Presoak elkarriketatze, delituen kokalekuak nola aukeratzen dituzten eta hara nola joaten diren ikertzeko!

Orientazioa

•Orientatzea gure inguruan kokatzea eta gure inguruko espazioa ezagutzea da.

•Hori errazagoa izango da, Lynchenustez, hiriak maila ona duenean ondorengo aspektuetan:

⇒Irakurgarritasuna(legibilidad): ingurune batek ezagutzeko, unitate gogoragarrietan antolatua izateko, ikasteko eta gogoratzeko daukan erraztasuna. Egitura edo estrukturarekin lotzen da.

⇒tokia ezagutzeko, tokian orientatzeko, zatitan egituratzeko, erraz orientatzeko...

⇒Irudigarritasuna(imaginabilidad): edozein behatzailerenganirudi bereizgarri bat sortzeko gaitasuna. Identitatearekin lotzen da.

⇒ikuslearenganirudi bizia eta berezia sortzeko gaitasuna

•Irudi eraginkorrak irakurgarritasuna eta irudigarritasunakonbinatuko lituzke

Orientazioa: irakurgarritasuna (legibilidad)

• Hiri eta eraikinen irakurgarritasunak gero eta garrantzi handiagoa hartu du

-Ospitaleak, zaharren egoitzak

- Antzinako hiriak eta hiri modernoak oso desberdinak dira irakurgarritasunari dagokionez
 - Historia, Labirinto itxura, Irakurgarritasun baxua
- VS.
 - Kale paralelo eta perpendikularrek orientazioa errazten dute
- Funtsezko aspektua da espazioen diseinuan eta berrikuntzan

Nabigazioa edo Wayfinding-a

- Wayfinding-a ingurune batean modu eraginkorrean mugitzeko aukera ematen duen egokitzapen-funtzioada.
 - Hiri berri batean, lehen aldiz bisitatu duzunean, zer estrategia eta material erabiltzen dituzu orientatzeko eta zure bidea aurkitzeko?
- Gärling et al. (1986) wayfinding-ean eraginda duten ingurune fisikoaren lau ezaugarri deskribatzen dituzte:
 - Bereizketa-maila . Espazioaren zatiak berdinak edo desberdinak izatea (koloreek laguntzen dute)
 - Ikusmen-helburuaren maila. Gure kokapenetik lekuaren zenbait zati ikusteko aukera
 - Espazioaren distribuzioaren konplexutasuna. Leku mugitzeko prozesatu behar dugun informazio kantitatea eta zailtasuna
 - Zeinu-eta zenbaki-sistemak (sinboloak). Konplexuak diren lekuetan, zenbakiak eta sinboloak nabigazioa errazten dute

«You-are-here» maps-“Zu hemen zaude” mapak

- Gero eta konplexutasun handiagoa dago gure hirieszenarioetan, bai egituraren aldetik, bai informazioaren aldetik.
- Mapa hauen arazo posibleak:
 - Egiturazko korrespondentzia (structural matching):
 - inguruko puntuen eta mapan dituzten irudikapenen arteko korrespondentziak ezartzeko beharra.
 - maparen elementuak eta gure mapa kognitiboaren elementuak identifikatzeko beharra (kasu batzuetan mapa oso teknikoak)
 - Maparen orientazioa:
 - puntu kardinalekin zuzeneko korrespondentzia izatea. Horren zintzilik badago, forward-upbaliokidetasuna errespetatu behar da.
 - maparen orientazioa eta benetako orientazioa: gure aurrean dagoena maparen goiko aldean egon behar da

INGURUNEAREN PERTZEPZIOA ETA ESANAHIA *“Ingurunea lurralde emozionala da”*
(Ittelson, 1973)

Pertzepzioa eta esanahia: Ingurunearen esperientzia emozionala

- Ingurunearen esanahia aztertzean,

- espazio-antolamenduaren barne-irudikapena eta
- irudikapen hori antolatzeke erabiltzen diren elementu esanguratsuen barne-irudikapenaaztertu behar dira.
- Ingurumenaren esanahia ingurumen-ezagutzaren alderdi bat da

PERTSONA ↔ Interakzio prozesua ↔ INGURUNEA

- **EZAGUTZA LOKATIBOA:** Tokiko dimentsioei buruzko ezagutza (leku baten kokapena, distantzien estimazioa...)
- **EZAGUTZA EZ LOKATIBOA :** Ingurune bat pertsona batentzako dena, tokiko esperientzia psikologikoari buruzko ezagutza -itxuraren balorazioa, elementu nabarmenen analisia, balio emozionala... Hemen kokatuko dugu ingurunearen esanahiaren ikerketa
- Ingurumenaren esanahia subjektu bati leku bat beretzako zer den ulertzea ahalbidetzen dioten edukien multzoa da.
 - 1) Ingurumenarekiko elkar-eragin global horren lehen ikuspegia:** esanahiaren azterketaren erreferentzia-esparrua leku bateko esperientzia emozionala eragiten duten pertzepzio-ereduen analisia da.
 - Adibidez, hiri batean seinale multzo bat dago leku bakoitza ulertzen laguntzen digutenak, subjektuarentzat garrantzitsuak diren aldagai desberdinen arabera
 - Ondorio horiek izateko, ingurunean dauden informazio-balioko seinaleak interpretatu behar dira. subjektuari lekua ulertzea eta ingurune horretan duen interes-eta inplikazio-maila finkatzea ahalbidetzen diotenak.
 - Adibidez, espaloien mantentze-maila, fatxaden estetika edo ohitura edo usadio sozialen zeinuak, hala nola fatxadetan arropa esekita egotea edo ez
 - 2) Bigarren ikuspegiak** prozesu sozial, kultural eta politikoen esanahi espazialaren eraikuntza sozialean duten eragina aztertzen du.
 - Ikuspegi batek ez du bestea baztertzen, baina bakoitzak prozesu baten edo bestearen azterketan jarri du arreta. Ikasgaiari, 1. ikuspegiari jarriko da arreta, esperientzia emozionalaren oinarritzko garrantzia nabarmentzen duen horretan, aldagai soziokultural edo historiko-ekonomikoen garrantzia gutxietsi gabe.
- Inguruneak gizabanakoarentzat duen esanahiak, subjektuaren gainerako ekintzasistemei eragiten diena: jarduera kognitiboa, ebaluatibo eta jokabidezkoa.
- Emozio motak eta/edo intentsitate emozionalak funtzionamendu psikologikoaren esfera guztiei eragiten die.
- Ittelson(1973) pertzepzioa elkarren artean erlazionatuta dauden hainbat mailatan egiten dela ulertzen da.
 - Ez du esan nahi sekuentzialkiematen denik, baizik eta zeregin baten eta bestearen arteko interakzioaren emaitza gisa.

1. Erantzun afektiboa: balorazio emozionala

2. Orientazioerantzuna
3. Kategorizaziojarduera
4. Sistematizazio-lana
5. Manipulazioa

- Erantzunaren lehen maila afektiboa da (Ittelson, 1973).
- Egoeraren eragin emozional zuzenak sarritan bideratzen ditu subjektuak ingurunearekin dituen harreman-eta truke-estrategiak.
- Ingurunearen esperientziaren balorazioa subjektuak bere burua lekuan inplikatzeko baliabide bihurtzen da.
 - *Ze ekintza egin dezaket inguru honetan?*
 - *Nola egokitzen da inguru hau nire helburu eta asmoetara?*
- Balorazio emozionalak eta inguru fisikoari ezaugarri afektiboak egozteak, bakoitzaren inplikazioaren arabera ezaugarri fisiko eta espazialak esanahi sinbolikoko ingurumen bihurtzea dakar.
- Horrela, ingurunearen elementu objektiboak (formak, distantziak, itxura) subjektuarentzat esanguratsuak diren elementuen multzo bihurtuko dira:
 - handiak, txikiak, atseginak, desatseginak, politak, itsusiak, aspergarriak, dibertigarriak.

Ingurumen-pertzepzioaren prozesuaren faseak (Corraliza, 1987)

1. Esparru fisikoaren ezagutza eta azterketa maila: Espazioaren ezaugarriak. Aingura puntuaren hipotesia –esplorazioa ezaguna zaigun kokaleku batetik. Harreman espazialen sare bat eraikitzen dugu.
2. Alderdi fisikoaren balorazio-maila: Informazioa prozesatzen dugu eta espazioa interpretatzen dugu, ez bakarrik elementu adierazgarriengatik, baita gure inplikazioagatik ere.
 - Espazioari aurre egiten diogu gure helburu, itxaropen eta abarrekin.
 - Ingurumenaren eragin afektiboa agertzen da. Horrela, esanahien ingurumen-sare bat eraikitzen dugu.
3. Egokitzapen-maila: Espazioaren itxaropenen (expectativas) eta aukeren arteko alderatze edo konparaketaren emaitza gisa, gure erantzuna sortzen da.

**Pertzepzio-prozesua errepikatu ahala, lekua "gure" egiten dugu.*

Espazioaren jabetzea

- Gogoratu fakultatera lehenengoz sartu zinenekoa, etxe berri batera aldatu zinen eguna edo hoteleko gelara lehenengoz iristen zarenean egiten duzuna...
- Espazioaz jabetzeko prozesua: kide edo parte izatearen sentimendua garatzea, lekuak "gure" egitea, atxikimendua garatzea
- Jabetzearen eredu duala (Vidal eta Pol, 2005)
 - Eraldaketa-ekintza -Lurraldea markatzea
 - Identifikazioa (sinbolikoa)

**Zaintza-jokabideekin lotzen da*

Pertzepzioa eta espazioaren jabetzea

- Espazioaren jabetzea: prozesua
- Schonela, Steinberg, Leventon, & Wapner(1980):
 1. Bereizketa: zati ezberdinak identifikatu
 2. Artikulazioa: zati ezberdinak konektatu
 3. Integrazioa: zati ezberdinen arteko erlazio moduak ulertu

Tokiarekiko-atxikimendua (Manzo& Devine-Wright, 2019)

- Pertsonak beren artean lotura emozionalak eratzen dituzten heinean,gure bizitzetan garrantzia duten lekuekin ere lotura emozionalak ere sortzen ditugu.
- Lekuekiko lotura emozional horiei ingurumen-psikologoek tokiarekiko atxikimendua deitzen diote.

Tokiarekiko-atxikimendua

- Tokiarekiko-atxikimendua. Eskala desberdinak
 - Zuhaitz bat
 - Herria
 - Herrialdea
- Tokiek oroitarazten dizkiguten emozioak
 - Positiboak
 - Negatiboak
 - Nahasiak edo anbiguoak
- Esperientziak eta erlazioak
 - Gertatu ari diren esperientziekin lotuta vs. Tokiari buruz pentsatze hutsarekin
 - Egunerokoan egoten garen tokiak vs. Inoiz izan ez garen tokiak baina ideia bat irudikatzen dutenak (sorterria 2. generazioko migrazioan adibidez)
 - Dagoeneko ez dauden tokiekiko atxikimendua (fisikoki suntsituak izan direlako edo lekuesanahien aldaketagatik). Doluzko erantzun bat gogora ekarriz.

Tokiarekiko-atxikimendu teoriak eta ereduak. Tokiarekikoatxikimenduaren osagaiak.

- Eredu desberdinak garatu dira tokiarekiko-atxikimendua azaltzeko eta honen osagaiak identifikatzeko.
- Scannell& Gifford, 2010. Hiru dimentsioko ereduak: pertsonaprozesua-lekua osagaiekin.
 - Pertsona(norbanakoak eta taldeak): esanahia pertsonen historia, identitate eta esperientzietatik sortzen da
 - Lekua: lekuen ezaugarri eta kalitate fisikoek, eskala espazialak eta ezaugarri sozial/sinbolikoek
 - Prozesua: tokiarekiko-atxikimendua sentimendu(afektuak), pentsamenduak (Kognizioak) eta jokabideen konbinazio bidez sortzen dira.

- Raymond(2010). Tokiarekiko-atxikimenduaren 5 osagai (Australiako landainguruko lur-jabeen esperientzian oinarritua):
 - Leku-identitatea
 - Lekuarekiko dependentzia
 - Naturarekiko lotura
 - Familia loturak
 - Adiskidetasun loturak
 - Pertsona osagaien familia eta adiskideekin lotutako lekuak bereizten ditu.
 - Leku osagaia zabaltzen du: pertsonen loturak ingurumen bai naturala eta sozialarekin
- Lotutako beste fenomeno batzuk (ez dago adostasunik kontzeptuak erlazionatzeko moduari buruz):
 - Lekuaren zentzua: ingurune fisiko batek sortutako esperientziaprosesua, pertsona batek ingurune horri dakartzkion esperientzia, jarrera, balio, sinesmen eta esanahiekin ematen den konbinazioa (Steele, 1981).
 - Leku-identitatea: ingurune fisikoarekin eta harekin ditugun loturekin lotuta dauden ni-aren dimentsioak, nor garen definitzen dutenak (Proshansky, 1983)
 - Lekuaren mendekotasuna: leku batek gure beharrak eta aurreikusitako erabilerak ase ditzakeen maila (Raymond, 2010).
- Lewicka, 2011. Tokiaribiatxikimendumota (atxikimendu tradizionala eta aktiboa) eta hirudesatxikimendumota (alienazioa, toki-erlatibotasuna eta tokirik-eza).
 - Atxikimendu tradizionala: auzoetan, hirian edo batan eskualdean ziurtzat jotzen den errotzea.
 - Atxikimendu aktiboa. Leku fisikoak eta urrutiko erlatibotasun-maila kontzientealtua.
 - Adibidez. Urteasko anhibatean bizidiren pertsonen atxikimendu tradizionalagobaten berriematen dute. Leku batera aktiboki atxikitzen diren pertsonen sozialki aktiboagoak izateko joera dute beren hirian.

Tokiarekiko-atxikimendu teoriak eta ereduak:

Tokiarekiko-atxikimendu motak.

- Oikonimoak, etxeen izen propioak, diralñigo Rementerriagernikarrak azken urteotan eginduen ikerketa zabalaren oinarria. Izan ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako abizen askok baserrien eta etxeen izenetan dute jatorria.
 - Apaizak dio: haurren izena, zure izena, amarena, zure abizena eta amarena.
 - Aitak dio: zerda abizena?
 - Apaiza: nongoazara?
 - Aita: Belaustegibaserrikoa.
 - Apaiza: Juan de Belaustegi.

- Eta horrelaidatzitageratzenda eta horrelajarauntsida gauregunarte, kasuaskotan.
- Herritarren tokiarekiko-atxikimendu zibikoa edo tokiarekikoatxikimendu naturala (Scannelleta Gifford, 2010).
 - Toki zibilekiko-atxikimendua: auzoa, herria, hiri mailakoa izan daiteke. Izaera sozial eta sinbolikokoazateko joera du. Nortasun kolektibo zabalagoarekin lotua (gure hiriaz harro sentitzea).
 - Toki naturalekiko-atxikimendua: tokiko eremuaren ezaugarri naturalekiko atxikimendu emozionala. Beren inguruneko aspektu naturalei lotuago daudenek ingurumenaren aldeko portaera gehiago erakutsiko dituzte.

Tokiarekikoatxikimendua eta emozioak.

- Tokiarekiko lotura emozional positiboak:
 - Atxikita gauden tokiek maitasun-eta zoriontasun-sentimenduak ekartzen dituzte gogora, eta segurtasun-, kidesun-eta erosotasun-sentsazioa sortzen dute (Cooper Marcus, 2006).
 - Leku gogokoenak. Autoestimu positiboa eta harrotasunaren zentzua eragiten dute (Twigger-Ross eta Uzzell, 1996).
- Sentimendu negatiboak edo anibalenteak.
 - Pertsona baten bizitzan presentzia positiboa izan duen leku maite bat galdu edo aldatu egiten denean. Adibidez: norbereakborondatearen kontrako etxegabetzeak.
 - Leku garrantzitsu eta esanguratsuak aldi berean esperientzia alai eta mingarrien iturri direnean.
 - Pertsonak leku bati buruzko sentimendu aurkituak izan ditzakete eta, hala ere, atxikimendusentimendu gisa esperimen tatu.

Tokiarekiko atxikimendua: dinamikoa eta sozialkisortua.

- Leku fisikoak eta toki horiei ematen dizkiegu esanahiak (hauekin atxikimendua sortuz), esanahi eta lotura horiek agertzen diren testuinguru soziokultural eta politiko-ekonomikoaren emaitza dira.
- Tokiarekiko-atxikimendua, pertsonelkarrekintokiko eguneroko esanahiak formulatzen dituztenean eraikitzen da (Di Masso, 2014)
 - Adibidez: urtero parkearen parte jakin batean egiten diren oinarri kultureko ospakizunen eraginpean dagoen parke bati atxikipena.

Tokiarekiko-atxikimenduaren aplikazioa.

Ildo nagusiak:

- Mugikortasunaeta birkokapena.
 - Adibidea. Diru-sarreratxikikofamilientzakoetxebizitzak eraisteadakartenhiri-berroneratzeko(regeneración) programen eraginak. Egoiliarrekzailtasunakizatendituzte lekuariatxikimenduakmoztENZAIZKIONEAN(Manzo, 2014). Migrazioprozesuaketa etorkinaknolaegokitzen direnauzo berrira. Etorkinakjaioterrikotokibaliotsuakgogorarazten dituztenezaugarribatzukzituztenlekuetxikimenduetarakosortzea (Rishbeth, 2014).

- Ingurumena suntsitzea.
 - Adibidez: komunitateareneragozpenakazpiegitura energetikoen kokapen lokalari: antenak etab. (Devine Wright, 2009).
- Gizarte-taldeen arteko tentsio aktiko komunitateetan:
 - Adibidez: egoiliarrenerantzun ahariguneak aldatzenez, "exotaleak" edo "besteak" etortzenez. Jentifikazioa, etab.
- Hiridiseinua eta plangintza proiektuen erronkak:
 - Plangintza eta diseinuak mesede egindiez aietokiarekiko atxikimenduari, diseinu-soluzioentzako sozialki harkorrak gidatzeko moduz hartuz. Adibidez. Eraispentik leku maitatuak babesteak komunitateko ideek diseinu-prozesuan parte hartuz (Hester, 2014).

Sozialki eraikitako eta partekatutako esanahia

- Artea, ekintza kolektiboa eta aldarrikapen soziala.
- Desberdintasun kulturalak... eta kulturen arteko elkarbizitza

Pertzepzioa eta esanahia: IPko ikerketa ildo nagusiak

- Faktore objektiboa: diseinuaren ezaugarri bereizgarriak. Esparru fisikoaren konfigurazioa.
 - Ezaugarri fisikoaren funtzionaltasuna ← → Jokabide motak
 - Adib.: delituaren mapa
- Faktore subjektiboa: esparru fisikoaren barne-irudikapenaren azterketa.
 - Mapa kognitiboak
 - Ingurunearen dimentsio afektiboak
- Erreferentzia-faktoreak: ingurunearen ezaugarri objektiboen eta subjektuen esleipenen (atribuzioen) arteko elkarreragina zehazten duten aspektuak: ezagutza, itzaropenak, espazioak erabiltzeko gaitasuna, lehentasunak...
 - Gizabanakoak bere espazioarekin nola elkarreragituaz aztertzea
 - Adibidez, arriskuaren pertzepzioa eta saihesteko jokabideak (conductas de evitación)

GAI BEREZIAK: PAISAIAREN PERTZEPZIOA ETA INGURU BERRIZTATZAILEAK:

Paisaiaren pertzepzioa

- Paisaiaren lehentasunei buruzko ikerketak
- Paisaia soinuarena

Inguru berriztatzaileak

Gai bereziak: ingurunearen pertzepzioa eta esanahia

- Paisaiaren pertzepzio estetikoari buruzko ikerketa. Paisaia lehentasunak edo preferentziak
- Zerk egiten du paisaia polita edo erakargarria?
 - Ezaugarri gakoak: Fitofilia eta Hidrofilia.
 - Bi ikerketa eta lan lerro:

- Paisaiaren ebaluazio ikerketak: paisaiaren ezaugarri objektiboetan oinarritutako lerroa. Adituen irizpidea.
- Lehentasun edo preferentziaikerketak: paisaiaren erabiltzaile arrunten esperientzia subjektiboan oinarritua. Pertsona bakoitzak naturaren aurrean daukan esperientzia estetikoaren ikerketan oinarritua.

Paisaia lehentasunak edo preferentziak:

Appleton eredua (1980)

- Lehentasunak edo preferentziak, portaera-ereduekin zerikusia duela adierazten du. Ingurumen-egokitzapeneko prozesu filogenetikoekin lotuta: biziraupenerako balioa
- Eta horren ondorioz, panoramika edo babeslekuaren lehentasun teoria proposatzen du. Panoramika-Aterpearen teoria (Appleton, 1980).
 - Espeziaren biziraupena bermatzeko balio izan duten inguruneak nahiago ditugu.
 - Paisaiaren egitura lehenesten du, bere edukiaren aurretik.
 - Mugimendurako aukerak ere kontuan hartzen ditu.

**Panoramika: behatzeko aukera ematen du.*

**Aterpea: ikusteko aukera ematen du, ikusiak izan gabe" babesteko aukera*

Informazio-eredua Kaplan& Kaplan(1989)

Ondorengo baloratuko dugu:

1. Orientazioa erraza eskaintzen duen paisaia, bertatik ibiltzeko aukera izanez gero, ihesa ahalbidetzen duena. Paisaia mota honetan ez zara erraz galduko eta seguru sentituko zara. Irakurgarritasuna
2. Bertan ibiltzeko aukera izango bagenu, askoz ere informazio gehiago iradokiko lukeen paisaia; informazio gutxi emanez, informazio gehiagorako gogoia ematen diguna. Ikusten ez dena esploratzera gonbidatzen du. Misterioa
3. Gauza ezberdin asko dituen paisaia, eta, beraz, elementu ugari dituen. Aberastasun handiko irudia. Konplexutasuna
4. Elementuak ondo konbinatzen diren paisaia, elementu kongruente eta elkarrekin ondo datozen elementuekin. Elementuen kokapen eta egitura logikoa. Koherentzia

Lehentasun edo preferentziaazterlanak: Ikerketa

- Teknikak:
 - Eszenen balorazioa (argazki bidez edo in situ)
 - Paisai-esplorazio patroiak
 - Konposizio fotografikoak eta ordenagailuz lagundutako simulazioak

Lehentasunei buruzko ikerketak: Aplikazioen adibideak

- Hiriko paisajismoa eta egoitzen diseinua: naturan ikasten duguna hirian aplikatzea:
- Parke Naturalen kudeaketa
- Inpaktu bisualaren balorazioak: obrak eta proiektu berriak egiten direnean

Espazio berriztatzaileak

- Inguru urbanoeketa eguneroko bizitzaren eskaerek eta eginkizunek, estresa eta nekea sortzen dizkigute.
- Paisaia naturalaren eragin “berriztatzailea”

Espazio “berriztatzaileen” eragina azaltzen duten teoriak:

1. Ulrich(1981) Estresetik errekuperatzeko teoria planteatzen du.

- Ingurune naturaletan egoteak hiri-inguruneak eragindako estresa murrizten du, errekuperazioa sustatuz.
- hiriko gune batzuk eta hirian egiten diren aktibitate batzuk berriztatzaileak izan daitezke

2. Kaplany Kaplan(1989), Kaplan(1995): Arretaren errestraurazioaren teoria.

- Hiri-inguruan eta eguneroko bizitzan:
 - Arreta gidatua -Berez gure arreta erakartzen ez duen zerbaiti arreta jarri beharra. Kontzentrazioa.
 - Nekagarria da.
- Arreta gidatuko gaitasun horren “errestraurazioa”, ongizate psikologikoa, eta nekea murriztea hainbat modutan lor daiteke.
- Horien artean, arreta modu alternatibo bat: nahi gabeko arreta

ARRETA BERRESKURATZEAREN TEORIA (Kaplan & Kaplan, 1989; Kaplan, 1995)

9.00h → 10.00h → 11.00h → 12.00h → 13.00h

Arreta mantendua	Ahalmen kognitiboaren gutxitzea
Estimuluen arteko ezberdinketa	Akatsen areagotzea
Ideien arteko loturak	Neke sentsazioa
Informazioaren prozesamendua	Umore txarra
Lanerako ahalmena	

Espazio berriztatzaileak

•Paisaia bat berriztagarri egiten duten ezaugarriak (Kaplan, 1995):

- Bateragarritasuna**(compatibilidad): helburu eta lehentasun pertsonalekin
- **Lilura** (fascinación): nahi-gabeko arreta erakartzen du
- **Beingawayedo urruntasuna** (lejanía): beste mundu batean egotearen sentimendua
- **Hedadura nahikoa** (extensión): aniztasuna eta koherentzia, giro gisa behatzeko eta esperimintatzeko.

**Paisaia naturalak ezaugarri hauek dauzka.*

Espazio berriztatzailleak. Ezaugarriak

- **URRUNTAS.**
 - Ohiko ohitura eta zeregenetatik urruntzea
 - Distraitzen duen estimulorik ez
- **HEDADURA**
 - Elementu ezberdinen aniztasuna
 - Egitura koherente eta ordenatua
 - Ikusmena toki urrunetara iritsi daiteke
- **LILURA**
 - Estetikoki ederra
 - Esploratzeko gogoia piztu
 - Modu naturalean arreta bereganatzen duten estimuluak
 - Zentzuak estimulatu
- **BATERAG.**
 - Segurtasuna eta erosotasuna
 - Lasaitasuna Gustoko ez dugun estimulaziorik ez

Esperientzia berriztatzaillearen faseak

1. FASEA Arretaren berriztatzea

- Hondakin kognitiboen garbiketa
- Arreta mantenduaren berreskuratzea

2. FASEA Hausnarketa

- Norbere egoeraren inguruko hausnarketa
- Hausnarketa sakona/ transzendentea

(Herzog, Black, Fountaine, & Knotts, 1997; Herzog, Maguire, & Nebel, 2003)

Dakiguna	Ez dakiguna
Inguru naturalak: a. Zereginerrazakburutzerakoan errendimendukognitiboahobetzenda b. Estresa murriztendu c. Emozionegatiboakmurriztenditu(tristura, haserrea...) d. Emoziopositiboakareagotzenditu(poza, lasaitasuna...) e. Adierazlefiologikoakorekatzenditu(odol	la dena... Ea inguru naturalak: a. Zereginkomplexuetanerrendimendu kognitiboahobetzenduen b. Hausnarketatranszendentalanola erraztenduen c. Dituenefektuakpertsonaezberdinengan nolaeragitenduten d. Efektuezberdinekzenbatirautenduten

presioa, bihotztaupadak...) f. Paisaiaberriztatzailleezberdinekez daukateahalmenberbera	e. Gizartearenaldekojarreraksustatzen dituen
--------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------

Berriztatzeko gaitasunari buruzko ikerketa enpirikoaren emaitzak

- Zer gertatzen da hirian? Posible al da berriztatzea edo errestituzioa?
 - Oro har, paisaia naturalak hiri-paisaiak baino berriztatzailleagoak direla ikusten da.
 - Baina gero eta ebidentzia gehiago ditugu hiri-espazio berriztatzaillei buruz
- Lehenespen pertsonaletan eragina dute errestituzio beharrak eta berriztatzegaitatzeko lekuri egokienei buruzko sinesmenek.
- Ingurune naturalekin kontaktuan egoteak estresa eta neke mentala lehengoratzeko edo errestituzioa eragin dezake.
- Ingurune naturalekiko kontaktuak osasunean eragin positiboak eragiten ditu (adib.: Presio arteriala).

Aplikazioak

- Onura psikologikoak beharrezkoak diren lekuetan inguru berriztatzailleak eraikitzea
- The healinggardens(TopherDelaney) sendatzeko gaitasuna duten lorategiak

Paisaia soinuduna

- Paisaiaren ikerlanetan: elementu sentorialeiei atentzio falta; gela intsonorizatubidezko azterlanak (harridura, deserosotasuna...)
- Soinua ezin da soilik ingurunea degradatzeko elementu gisa ulertu: ZARATA. Esku-hartzeak ezin dira defentsarako bakarrik izan; soinua zaindu eta baloratzeko inizatibak falta dira.
- Paisaia soinudunak espazioaren pertzepzioa eta esanahia aberasten ditu: ikerketek erakusten dute soinuak ikusizko espazioaren eraikuntza aberasten duela eta identitateari laguntzen diola.

3. Gaia: Hiriko espazioaren esperientzia

ERAIKITAKO INGURUA EBALUATZEN

Okupazio osteko ebaluazioa (EPO)

Ingurua bideratzaile edo mugatzaile gisa ulertzen da. Inguruneak erabiltzailearen beharrak / jokabideak erraztu edo mugatuko du:

- Norbanakoak edo taldeak hainbat motatako ingurumen-premiak edo beharrak ditu

(espazialak, fisikoak, sozio-fisikoak, sozialak, kulturalak, etab.).

·Bere helburuen, planen edo rolen arabera.

·Ikuspuntu horretatik, inguruneek planak garatzea edo gizabanakoaren edo taldearen beharrak asetzea zenbateraino erraztu dezaketen ebaluatzen da.

·EPO batean, eraikitako ingurune batek, behar horiek betetzen dituen ala ez aztertzen da, eta zein puntutaraino.

·EPOak non?: etxebizitzak, bulegoak, eskolak, plazak publikoak, etab.

·Ebaluazio deskriptibo erabilgarria da: esparru espazialaren aldaketei eta kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko.

·Helburu aplikatua du: esparru errealetan garatzen da, benetako lekuak ebaluatzen dira. Ez da laborategian egiten.

·Eraikinaren errendimendua neurtzeko egiten da ebaluaketa. Beraz, eraikina denboraldi batez erabili ondoren egiten da. Ingurumen-auditoretzen esparruan egin ohi da (erakunde/enpresa baten jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina sistematikoki ebaluatzeko eta dokumentatzeko sistema. Ematen duen informazioarekin inpaktu hori murrizteko erabakiak har daiteke.

EPOetan kontuan hartu beharreko faktore soziokulturalak

-Aniztasun soziokulturala kontuan hartzea: adibidez, eleaniztasuna, sentsibiltate erlijiosoak, herritarren parte hartzea

-Espazio sozialak erraztea: atsedenareko eremuak, kafea hartzea

-Espazioaz jabetxea, pribatutasuna, asebetetze ergonomikoak: pertsonalizazioa, bileretarako eremuak, espazio nahikoa eta instalazioetako erosotasuna

-Erabiltzaileek eraikinaren bizi-zikloan parte hartzea: iradokizunen postontzia

Lehen instrumentuak / Physical and Architectural Features Checklist (PAF) Moos (1980)

1. Irigarritasuna (accesibilidad): hiri-ingurunean integratzea.
2. Erosotasuna eta erakargarritasun fisikoak.
3. Gizarte- eta jolas-laguntzak. Elkartrukerako tokiak egotea.
4. Irigarritasunerako laguntzak: behar bereziak dituztenen premiak kontuan hartzea.
5. Orientazioarako-laguntzak. Orientazioa ona izan dadin egitura eta laguntza egokiak eskaintzea.
6. Segurtasun-ezaugarriak: jagoletza-neurriak (medidas de vigilancia) eta istripuak prebenitzeko neurriak. Segurtasun neurriak argiak eta ulergarriak izatea.
7. Bertarako langileentzako lantoki eta atsedun gune egokiak egotea.
8. Erabiltzaile kopuruaren eta espazio erabilgarriaren artean oreka egotea.

-Aplikazioa: lan-eta erakunde-inguruneak, batez ere

-BOSSA tresnak:

·BOSSA Time-Lapse: eraikinaren erabiltzaileentzako galdetegia

·BOSSA Building Metrics: neurri objektiboak eta sentsoreak.

·(Osagai berria) BOSSA Snap-Shot questionnaire: "Hemen eta orain" galdetegi gehigarria, neurri objektiboen eta subjektiboen arteko korrespondentzia edo elkarrekikotasuna aztertzeko.

Eraikinaren erabiltzaileentzako BOSSA galdetegia (1)

Dimentsioa	Elementuak
1. Erosotasun espaziala	<ul style="list-style-type: none">✓ Atsedeen hartzeko espazioak✓ Lan-eremuaren estetika✓ Kideekiko elkarreragina edo interakzioa✓ Lan-eremua pertsonalizatzea✓ Elkarlanean aritzeko/taldean lan egiteko espazioak✓ Altzarien (<i>mobiliario</i>) erosotasuna
2. Eraikin-barruko airearen kalitatea	<ul style="list-style-type: none">✓ Airearen zirkulazioa✓ Hezetasuna✓ Aire "freskoa"✓ Airearen kalitatea
3. Kontrol pertsonala	<ul style="list-style-type: none">✓ Berogailuaren banakako kontrola✓ Aire girotuaren banakako kontrola✓ Aire-fluxuaren banakako kontrola✓ Argiztapen artifizialaren banakako kontrola✓ Espazioa egokitzeko askatasun-maila

Dimentsioa	Elementuak
4. Distrakzio-zaratak eta pribatutasuna	<ul style="list-style-type: none">✓ Nahi gabeko etenak✓ Ikusia izateari dagokion pribatutasuna (Ikusi edo ez ikusia izateko aukera)✓ Entzuna izateari dagokion pribatutasuna (Entzuna edo ez entzuna izateko aukera)✓ Zarata-maila orokorra
5. Kanpoarekiko lotura edo konexioa	<ul style="list-style-type: none">✓ Kanpoko ikuspegia✓ Argi naturalaren eskuragarritasuna✓ Kanpoarekiko lotura
6. Eraikinaren itxura eta mantentze-lanak	<ul style="list-style-type: none">✓ Garbiketa✓ Mantentze-lanak✓ Eraikinaren estetika

Dimentsioa	Elementuak
7. Espazio pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lanpostuan lekua izatea (<i>disponibilidad de espacio</i>) ✓ Biltegitzeko espazioa (<i>espacio para almacenamiento</i>)
8. Erosotasun termikoa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Neguko tenperatura ✓ Udako tenperatura
9. Erosotasun bisuala	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Argiztapena ✓ Kortinen edo pertsianen banakako kontrola

BIZITEGI EDO EGOITZA-GOGOBBETETZEAREN GARRANTZIA ETA KONTZEPTUA

Bizitegi inguruneak (ambiente residencial)

·Egoitza-ingurunea bakarra da, eta beste ingurune batzuetatik bereizten dena, hala nola lanekoetatik edo erakundeetakoetatik: bizitegi-inguruneak esanahia eta nortasuna ematen dizkio gizabanakoari.

·Ingurumen-psikologiako ikerketarako bereziki esanguratsua den gaia

·Etxea eta auzoa bi ikuspegitatik aztertu dira:

Fisikoa: ekipamendua eta zerbitzuak

Soziala: etxebizitzaren eremu partekatuetan zein auzoan ezartzen diren sare sozialak.

·Bizitegi ingurunean: azterketa unitate nagusiak:

Auzoa

Etxea

Bizilagunak

Hiru analisi maila: etxea, auzoa eta bizilagunak. Azken hori da beste bien azpian dagoen dimentsio soziala.

-Bizitegi-ingurunea: Etxebizitza + hurbileko espazioa (fisikoa eta soziala) kokatuta dauden eta subjektuak bere eguneroko jarduera gehienak egiten dituen espazioa.

Etxebizitza: gizarte-integraziorako faktorea

·Etxebizitza ingurunea deskribatzeko Altman et al.-en dimentsioak:

1. Iraunkorra/aldi baterakoa
2. Berezia/homogeneoa

3. Komunala/ ez-komunala
4. Nortasuna/ komunalitatea
5. Irekia/ itxia

·Familia-egituraren erreferente fisikoa. Nortasun indibiduala eraikitzeak aukera ematen du. Aisialdiko sistema berrien espazioa. Sozializatzeko eta rolak ikasteko espazioa. Hazteko, hezteko eta arauak ikasteko espazioa.

Auzoa

·Auzo administratiboa vs. auzo soziologikoa

Auzo soziologikoa (Denche y Alguacil, 1987): hurbiltasuna aipatzen duen instantzia espaziala, auzokoa, gertukoa. Espazio honetan biztanleak babestuta sentitzen dira. Beraiena dela sentitzen duten hiriko zatia da. Auzoa identita-lurralde edo territoria da. Diseinua eta birdiseinua-- parte-hartzea vs. ezarpena (Pruitt-Igoeren adibidea)*.

Etxebizitza finkatzeko sistema (Rapoport, 1978). Etxebizitza ezin da sartu den multzoaren elementu isolatutzat hartu. Multzo espazial horretan, elementu guztiek elkarri eragiten diote modu interdependentean, sistema bat sortuz. Kale bat jarduera-egitura gisa – Jokabideen asentamendusistema –, horietan egiten dena. Kaleko tabernan egiten diren jarduerak kale bateko portaeran eragina izan dezakete.

Marans eta Todgers (1975): Makro-auzoa va. mikro-auzoa

-Makro-auzoa: ofizialki aintzat hartutako barrutiak edo horiek zeharkatzen dituzten bide publiko nagusiak erreferentziatzat hartzen dituen auzoa.

-Mikro-auzoa: etxebizitzaren ondoko gunea.

Baina auzoaren kontzeptua subjektuaren pertzepzioak eta haren kide izatearen sentimenduak zehazten dute. Auzoak ez du azalera jakinik, subjektutik subjektura aldatzen baita pertzepzioa. Beraz, auzoa eremu geografiko gisa definitzeak edo mugaketa politiko batek ez du zentzurik bizitegi-inguruneei buruzko azterketa psikoanbientaletan. Kide izatearen sentimendua kontuan hartu beharreko funtsezko ezaugarria da.

Bizitegi-inguruneetan zentratzen diren lan gehienek makro-auzoaren eta mikro-auzoaren arteko erdigunetzat hartu ohi dute auzoa. Gizabanakoaren etxebizitzatik hurbil dagoen eremu bat hartzen dute. Eremu horretan, zerbitzu batzuk ematen zaizkio gizabanakoari, eta bertan bizi diren pertsonekin adiskidetasunezko loturak ezartzen dira. Etxebizitza finkatzeko sistema (sistema de asentamiento de la vivienda, Rapoport, 1978). Etxebizitza ezin da kokatuta dagoen lekuaren osotasuna kontuan hartu gabe, elementu isolatutzat hartu. Multzo espazial horretan, elementu guztiek elkarri eragiten diote modu interdependentean, sistema bat sortuz.

Kalea: jarduera egitura bat da. Kale horretan egiten diren jokabideen asentamendu sistema.

-Dimentsio fisikoa: zerbitzu eta ekipamendu jakin batzuk dituen eta etxebizitzatik hurbil dagoen eremuari dagokio (osasuna, aisialdikoak, merkaritzakoak, kulturalak, hezkuntza, erlijiosoak...). Bizitza oinez joan ahal izango dira haietako gehienetara. Zerbitzu eta ekipamendu hauen artean elkarrekiko endekotasun-harremana dago, horietan egiten diren

jardueren araberakoa.

-Dimentsio psikosoziala: auzoak biztanleen artean sare sozialak ezartzeko aukera ematen du eta sare sozial horiek bertako kide izatearen nolabaiteko sentimendua dute. Weenig, Schimdt eta Midden (1990). Egile hauek bi dimentsioren araberako auzo-tipologia ezarri zuten, auzoko sare sozialaren kohesio-maila zehazteko.

·Hurbiltasuna: auzoko lotura komunitarioen kopurua islatzen du.

·Komunitate-sentimendua: auzoko loturen kalitatea islatzen du.

Ondorioa: auzoarekiko identifikazioa, kohesioaren dimentsioarekin lotura handiena duen dimentsioa da.

Espazio fisikoaren ezaugarriak: diseinua, mantentze-lanak, kokapena... Auzo soziologikoa: gure identitate sozialaren elementuetariko bat. Etxe eta auzo kontzeptuen azpian dagoen gizarte-dimentsioa: hauekin erlazioan ikertzen da. Osagau honen azterketaren ardatza: etxebizitzaren edo auzoaren diseinuak egoiliarren interakzio-ereduetan zenbateraino eragin dezakeen zehaztea du ardatz. Bi ikerketa-arlo:

·Bizilagunen arteko hurbiltasuna

·Komunitate-sentimendua

BIZILAGUNEN ARTEKO HURBILTASUNA: Propinkuitatea, jendeak okupatzen dituen lekuen arteko hurbiltasuna. Ondorio sozial onuragarriak eragiten dituzten bi propinkuitate-mota:

·Bi gizabanakoren arteko distantzia fisiko objektiboa. Festinger eta kolaboratzaileak (1950): zenbat eta txikiagoa izan bi gizabanakoren arteko distantzia, orduan eta aukera gehiago lagun izateko.

·Distantzia funtzionala: bi pertsonak kontaktua maiz izateko probabilitatea.

BAINA: Aldagai soziodemografikoek ere eragiten dute (homogeneotasuna edo subjektuen arteko homogeneotasun falta) Propinkuitateak etsaiak ere sor ditzake (Bell et al., 1996). Giro txarraren hipotesia: Auzokide batzuen jarduerak (zaratak, ohitura txarrak, festak, etab.) hautemandako bizi-giro kalitatea hondatu dezakete.

Komunitatesentimendua: auzo-loturen garapena eta ezartzea. Brown eta Werner (1985) hiru hurbilketa kontzeptual: 1. Auzotarren kohesioa 2. Tokiarekiko atxikimendua: gizabanako edo talde baten autokontzeptuan lekuak jokatzeko duen papera, 3. Bizitegi-eremuko lurraldetasuna Egile hauentzat, hiru hurbilketa horiek ikuspegi holistikotik hartu beharko liriateke kontuan: auzoarekiko atxikimendua bezala ulertu

Pruitt-Igoe*

Egoitza asetasunari buruzko azterketen aurrekari klasikoa zen Pruitt Igoe Urbanizazioa. Missouri eremu oso pobreak egindako urbanizazioa izan zen, ia 3000 familia jasotzeko. Erabiltzaileen itxaropenak eta ezaugarri sozialak ez zuen kontuan hartu diseinuan eta kudeaketan zalantzazko erabakiak. Beraz, porrot egitera kondenatuta zegoen.

KOMUNITATE ZENTZU-PSIKOLOGIKOA. Osagarriak:

Banakoak beste pertsonekin duen antzekotasunaren pertzepzioa. Talde sozialeko kideen arteko erlazioak. Erlazioa mantentzeko nahia, besteei haiengandik espero duguna emanaz eta eginez (elkarrekikotasuna). Egitura sozial egonkor eta fidagarri bateko parte izatearen sentimendua (partaide izatearen sentimendua).

IDENTITATE SOZIALAREN TEORIA (Tajfel & Turner, 1979) Gizakiak berezko dauka bere burua talde batean sailkatzeko tendentzia Bere izatearen parte bat talde horren arabera eraikiko du Gainontzeko taldeetatik ezberdintzeko, mugak ezarriko ditu, ezberdintasunak nabarmenduz.

Lau elementu nagusi: Kategorizazio soziala Identifikazio soziala Konparazio soziala Norberaren aldeko bereiztasun positiboa + LEHIAKORTASUNA

Bizilagun arteko kohesioa neurtzeko galdeketak:

Hainbat eskalarekin neurtu izan da. ADIB: Gil et al-ek egindako eskala (1996). 21 galdera - Likert formatuan Eskala honen estruktura: 4 faktore

1. Auzokideak: elkar-laguntza eta erlazioak. Adib. «Nire auzokideei faboreak eskatzen dizkiet»

2. Aldaketaren beharra. Adib. «Posible izango balitz, beste leku batera joango nintzateke bizitzera»

3. Identifikazioa. Adib. «Auzoaren partaide sentitzen naiz»

4. Asebetetzea. Adib. «Auzo honetan bizitzea gustatzen zait».

BIZITEGI-INGURUNEA = f (AUZOA + ETXEA + AUZOKOAK)

Prozesu psikosozialak bizitegi-inguruneetan

Ingurune batean bizitzaren ondorioz sortzen diren prozesu psikosozialak. Etxebizitzarekiko identitatea: Nortasun pertsonala eta soziala proiektatzea espazioa pertsonalizatuz. Etxearekiko atxikimendua. Tokiarekiko atxikimendurekin lotua. Egoitza-gogobetetasuna (satisfacción residencial).

Etxebizitzarekiko identitatea: Nortasun pertsonala eta soziala proiektatzea espazioa pertsonalizatuz. Etxebizitza ingurune fisikoa da eta baita kontzeptu kognitiboa ere (Tognoli, 1987). Pertsonak prozesu psikologikoak egiten dituzte, eguneroko bizitza garatzen duten ingurunea egokitu eta optimizatzeko. Etxebizitza kontzeptu afektiboa da: pertsonarentzako esanguratsuak eta garrantzizkoak diren elementuak dituen espazioa da. Etxebizitza kontzeptu sozial gisa: helburu multzo baterako sortutako erakundea (Rapoport, 1972).

Pertsonak bere nortasuna adierazten duen etxea aukeratzen du (ahal bada), eta proiektatu nahi duen identitatea agerian jarriko duten objektuen bidez pertsonalizatzen du. Etxebizitzak bertan bizi diren pertsonen identitatea (nortasun pertsonala) eta nortasun soziala (talde edo estatus sozial jakin bateko kide izatea) adierazten ditu.

Etxebizitza, selfaren isla edo erreflexua (Cooper, 1995).

Etxearekiko atxikimendua: Tokiarekiko atxikimenduarekin lotua.

Etxebizitza: Espazio horrek harreman esanguratsua adierazten du, emozionalki sostengatua, jendearen eta haien etxebizitzaren artean. Aurreikus daitekeen leku bat, segurua, pertsonak kontrola dutela sentitzen duten lekua. Esanahia eta nortasuna ematen die gure bizitzari. Gure gizarte-harremanak egituratzen ditu. Bizi-jarduera nagusietarako kokapena ematen du. Aurreikus daitezkeen eta ohikoak diren gertaeren lekua. Gure iragana osatzen duten oroitzapen nagusiak ekartzen dizkigu gogora. Honek guztiak toki horrekiko lotura psikologikoa sortzen laguntzen du.

Werner, Altman eta Oxley (1985) Azalpen teorikoa: ingurunea eta pertsonaren arteko ikuspegi transakzionala. Etxea unitate dinamikoa gisa: pertsonak, lekuak eta denboradimentsioak osatua.

Etxearekiko atxikimendua: Tokiarekiko atxikimenduarekin lotua. Beraz: etxebizitzaren (vivienda – hogar) eta etxearen (casa) arteko aldea, prozesu psikologiko afektibo batean dago, leku fisiko horren eta gizabanakoaren artean ezartzen denean, alegia. Lotura-prozesu psikologiko hori etxebizitzatik haratago zabal daiteke, auzoraino, baita eskualde zabalagoetara ere. Tokiarekiko atxikimendua esaten zaio. Shumaker eta Taylor (1983): norbanakoen eta haien bizitegi-ingurunearen arteko lotura afektibo positiboa.

Egoitza gogobetetasuna (satisfacción residencial): 50-60 hamarkadetan hasten da pertsonak bizi diren inguruneari buruz erakusten duten gogobetetasuna aztertzearen interesa. Bizitegi-asebetetzearen eredu sistemikoa (Amérigo, 1995, Modelo sistémico de satisfacción residencial): bizi den inguruneaz pertsona bakoitzak egiten duen ebaluazioa. Ingurunearen ezaugarri objektiboak eta subjektiboak: bizitegi-ingurune objektiboa (ezaugarri fisikoak eta sozialak) subjektibo bihurtzen da subjektuak ebaluatzen duenean. Ezaugarri pertsonalek izaera ematen diote bizitegi-ingurune horri, eta bakarrik bihurtzen da, honek aukera ematen dio erabiltzaileari nolabaiteko afektua edo gogobetetasuna izateko. Jokabide-asmoak/egokitze-jokabideak: gogobetetze-egoera horren ondorioz, zenbait jokabide eta/edo egokitze-mekanismo egitea dakar, gizabanakoa bizi den lekuarekin bat datorren egoera batera eramaten dutenak. Bizitegi-asebetetzearen eredu sistemikoa (Amérigo, 1995, Modelo sistémico de satisfacción residencial): bizi den inguruneaz pertsona bakoitzak egiten duen ebaluazioa.

Zer da “etxean sentitzea”? Eraikitako etxe/ egoitzaren eta bere erabiltzailearen artean hautemandako oreka edo egokitasuna (Tognoli, 1987). Bizi kalitatearen adierazle subjektibo bat.

Bizitegi-asebetetzearen kontzeptua:

Bizitegi-asebetetzea: egokitzapen harmonikoko prozesu baten emaitza gisa (**erantzun emozionala**). beharren eta nahien arteko oreka (**erantzun kognitiboa**). Analisi-ereduak: Mendeko aldagai gisa: bizitegi-kalitatearen indizeak. Aldagai independente gisa: bizitegi-mugikortasuna.

Bizitegi-asebetetzean eragiten duten faktoreak



Egoitza kalitatearen adierazle batzuk: Auzoak eskaintzen dituen zerbitzuak, Etxearen eta inguruko arkitekturaren kalitatea, Auzoaren mantentzelanak, Delitu maila baxua eta segurtasun pertzepzioa, Interakzio soziala, Bizilagunekiko identifikazioa, Bizilagunekiko asebetetasuna.

Bizitegi-asebetetzearen paradoxa: Asebetetze handiagoa auzo eta espazio deprimituenetan. Tognoli: gizabanakoa bere ingurunera egokitzeko prozesua. "Estandarren" eta dinamika sozialen eragina.

ETXEA MUNDUAN ZEHAR

Bizitegi-inguruneak kultura desberdinetan

Familia-, komunitate- eta bestelako bizitza egoeretako irtenbideak. Diseinu-aniztasuna eta Espazio publiko-pribatuaren mailaketa edo gradazioa.

IDENTITATE URBANOA TOKIAREKIKO-ATXIKIMENDUA

Hiri-ingurunearekiko harremanean funtsezkoak diren aldagaiak

Identitate (sozial) urbanoa: Hiri-identitatea (Lalli, 1988) nortasun pertsonalaren zati gisa Hiri-nortasun soziala (Valera, 1993; Valera eta Pol, 1994): Hiri-espazioek nortasun soziala garatzen laguntzen dute. Identitate soziala talde sozial jakin batzuetako eta ingurune jakin batzuetako kide izatetik dator, bai talde eta ingurune horiei lotutako esanahi baloratibo eta emozionaletik ere. Hiri erreferentzia-esparrutzat hartzen dugunean = > Hirinortasun soziala. Auzoa, gunea, hiri eta bere hiri-elementu sinbolikoak

Tokiarekiko atxikimendua: Pertsonen eta haien giroen arteko lotura emozionala. Hainbat

egile – Zenbait desadostasun Edukia - Low eta Altman, 1992: emozioak eta sentimenduak. Oro har, lotura positibotzat jotzen da. Espezifikoa vs. orokorra: beste kontzeptu batzuekin lotuta, hala nola komunitate-zentzua, satisfakzioa... Hidalgo (1998) Afektiboa, positiboa, espezifikoa den lotura. Jokabidearekin lotutakoa: lekuan geratzeko joera.

Rubinstein: Pertsona batek leku batekiko duen atxikimenduaren intentsitate mailak:

1. Lekuaren ezagutza: sentimendu edo oroitzapen pertsonalik ez
2. Atxikimendu pertsonalizatua: bere esperientzia pertsonaletik bereizi ezin diren leku baten oroitzapenak. Adibidez: txikitan jolasten genuen lekuak
3. Oso oroitzapen hunkigarriak edo gizabanakoa psikologikoki inguratzen dutenak: atxikimendu bizia, norberaren hedapen gisa.
